

txintxarri

Gipuzkoa abordatu du

Fibromialgia gaixotasuna ikusarazteko helburuz, 200 kilometroko erronka osatu du Beñat Garcia Escribano herritarrek / 11

TXINTXARRI

Heriotzaz "lasai eta aske" aritzeko

Zainketa aringarrietako osasun langile Eli Elizegi eta Iñigo Suberbiolak hitzaldi bat emango dute Arrieskalleta elkartearen / 9

Gazteentzako espazio autogestionatu baten beharra aldarrikatu dute LOGA asanbladako kideek / 2

Palestinarentzat "irtenbide justua" eskatzeko hartu dituzte kaleak herritarrek / 6


Ehunka herritar bildu dira herriko osasun zentroaren egoera salatu eta irtenbideak eskatzeko / 8

LOKEko judokak, infantil eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketako podiumean / 10

Aterpeak Udaberriko denboraldiko hiru zaldi lasterketa jardunaldi babestuko ditu Hipodromoan / 13

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



APIRILAK 3

17:00 - Goi maila eta espezializazioa



APIRILAK 8

17:00 - Erdi maila



APIRILAK 5

10:00 - Erdi maila

11:30 - Goi maila eta espezializazioa

USURBILGO LANBIDE ESKOLAKO

ATEAK ZABALIK

IZENA EMAN

tel. 943-36 46 00

WWW.LHUSURBIL.EUS





Udalerrriak gaztetxe bat behar duela aldarrikatu zuten gazteek, Okendo plazatik abiatuta. SARA ETXEBERRIA



Etorbizuneko herria nolakoa izatea nahi duten irudikatzen elkartu ziren. TXINTXARRI



Earral! eskolako kideak, bertsotan hasi berriren. TXINTXARRI

Gazte asanbladako kideek errotiko aldaketak eskatu dituzte

Udalerrian sumatu dituzten gabeziei erantzuteko asmoz Gazte Eguna aurrera eraman dute LOGA eragileko kideek. Ametsetako herria irudikatu dute: Okendoko frontoia berreskuratu, baratza komunitarioak egin, kontzertuetarako areto gehiago egokitu...

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Lasarte-Oriako Gazte Asanbladak, *Senti gaitzate!* lelopean, Gazte Eguna ospatu zuen hilaren 22an. Horretarako, hainbat ekitaldi aurrera eraman zituzten eragile horretako kideek goizetik gaueraino; manifestazioa, bertso-poteoa, bazkaria eta kontzertuak, besteak beste. Ospakizuna alaia eta bizia izan arren, LOGAko kideek aldarrikatzeko tartea ere izan zuten. Izan ere, arestian aipatutako egun horretan antolatutakoa, beste hainbat konturen artean, gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza eskasari erantzuna emateko proposamena izan zen.

Goiza hitzaldiarekin hasi zen, Antonio Mercero aretoan. Horretarako, aurretiaz prestatutako adierazpena irakurri zuten LOGA taldearen sorrera eta beharra azpimarratzeko. Ekimen

hori duela urtebete hasi zela gogorarazi dute; iazko maiatzean, herriko gazteentzako gaztetxea edo espazio autogestionatua lortzearen. Ildo beretik, Lasarte-Orian horrelakorik ez izatearen kalteak zerrendatu zituzten: kultura, aisialdi eta elkarbizitza eskaintzarekikoak, batez ere. Azken batean, kideek helarazi zuten gazteek autogestionatu gabeko espaziorik gabe euren premia beharrez eta nahiez solasteko aukerarik ez dutela; esaterako, ezin dutela etxebizitzaren inguruko aferaz eztabaidatu edota gazte mugimendua

EKIMEN UGARI AURRERA ERAMAN DITUZTE GAZTEEK, 'SENTI GAITZATELA!' LELOPEAN

antolatu. Hutsune horri buruz jardun zirelarik, duela urte batzuk galdutako Elebeltz espazioari buruz ere zenbait kontu esan zituzten eta horren harira, Xirimiri Elkarteak nolabaiteko espazio autogestionatuaren lana egin izana ere eskertu zuten.

Ametsetako Lasarte-Oria

Irakurriarekin amaitzeko bi ariketa egin zituzten, taldeka. Lehenengoan, ametsetako Lasarte-Oria irudikatu zuten; gazteen gustuetatik, nahietatik eta beharretatik abiatuta erakitako herria, hain zuzen. Okendoko frontoi zaharra, baratza komunitarioak edota kontzertu sala gehiago. Bigarren ariketan, egutegia hartu eta orotariko ekitaldiak proposatu zituzten: bitxikeriak egiteko tailerrak, soldadura edota iturgintza eskolak, eta abar. Jarduera ba-

koitza egiteko, bi orri izan zituzten. Segidan, taldeek proposatutako herria zein urtekaria borobilean aurkeztu zituzten, eta hori eginda, zizka-mizkez gozatu zuten.

Aretotik at, bertso-poteoari ekin zioten. Eurria egin arren, aterkien gerizpean herriko taberna ugariatatik pasa ziren bertsoak entzun ahala, jakiez eta edariez taldean disfrutatzera. Bertsolariak honako hauek izan ziren: Leire Ormazabal, Kattalin Lizarraga, Maddi Lasa eta Arait Ramos. Lierni Rekondu aritu zen gai jartzaile lanetan. Bien bitartean, Okendo Plazako etxabeetan, geroko bazkaria prestatu zuten: paella.

Bazkalostean, bingoa egin zuten, eta, jarraian, ateri zela aprobetxaturik, ginkana. Jolasak jolas, arratsaldean, manifestazioa

ESPazio BEHARRA HELARAZTEKO GUTUNA IDATZI DIOTE UDALARI; EZ DIE ERANTZUN ORAINDIK

egin zuten Okendotik abiatuta. Eguna Ertz taldearekin doinuekin amaitu zuten baita DJ Jotaxoxoren errepertorioarekin ere. Eguraldi txarra zela-eta, bi kontzertuak aurreratu egin behar izan zituzten: lehenek Jalgin jo zuten gaueko bederatzietan, eta ondoren, beste artistaren txanda izan zen, Ilargi tabernan.

Erantzunaren esperoan

Adiskide artean ongi pasatzeko eguna izan zen hilaren 22koa. Hala ere, LOGAko kideek Gazte Eguna udalaren erantzun ezarengatik sortu dela nabarmendu dute. Azken batean, euren sorrerarekin batera, herriko diagnostikoa egin, gazteen hutsuneak identifikatu eta horretarako espazio autogestionatuaren beharra sumatu zuten. Hori gogoan izanda, aipatu erakunde horri gutuna idatzi zioten espazio baten eskaera egiteko. Proposamen horren gainean gaur-gaurkoz hitzik ere esan ez dutenez, ekimeneko gazteek bien bitartean zerbait egiteko asmoz antolatu zuten jarduera sorta hori.

Udaberriari harrera egin diote zabaletarrek

Urtaro horrek herrira ekarriko duen alaitasuna eta kolorea ospatu dute Zabaleta auzoan. Txorietan aditu Miguel Olanoren hitzaldia eta Lurhats taldearen kontzertua izan dituzte, talogileek txistorra edo txokolatez betetako opil goxoak prestatu bitartean

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Hilaren 22an egun osoko ospakizuna prestatu eta aurrera eramane zuten Zabaleta auzoan. Goizean goiz, txorien kantuen berri izan zuten auzo elkartearen lokalera bertaratutakoek, Aranzadi Elkarteko Miguel Olano adituari esker; denek erakutsi zuten gai horrekiko jakin-mina. Etxeko txikienek askotariko galderak egin zituzten Olanori, baita etxeko helduenek ere. Tamalez, euria zela-eta, geroko ibilbidea bertan behera utzi zuten. Paseo hori hitzaldian erakutsitako zenbait kantu entzuteko programatuta zegoen.

Gainerakoan, Lurhats taldeak (Julen Basterra, Iban Nikolai eta Jon Buldain Monky Man dira kideak) kontzertua eskaini zuen arratsaldean, 19:00etan. Euren musikaz gozatzera jende asko bertaratu zen Basotxo plazan dagoen lokal horretara. Bien bitartean, euritik babesteko ipinitako karpenean, emakume talogilez osatutako talde batek taloak prestatzen jardun zuen. Txokolatea edo txistorra izan zuten aukeran herritarrek. Gauzak horrela, bertaratutakoek jaki goxo horiek dastatu bitartean amaitu zen urtaro berriari egingo dako harrera ekitaldia.



Lurhats osatzen duen hirukotearen kontzertua. TXINTXARRI



Eszerrean, Miguel Olano, hizketan. Eskuinean, Rosa Elizondo, taloak egiten. TXINTXARRI



XGIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Finalera sailkatu da Maddi Lasa

Earra! bertso eskolako ikasle Maddi Lasa izango da Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketako finalean (apirilaren 4an, Azpeitiako Elikagunean) ariko den zortzi bertsoarietako bat, azken fase horretarako txartela Aizarnazabalen jokaturako saioan eskuratuta. Bertan jardun zen baita ere ikaskide duen Leire Ormazabal baina ezin izan zuen sailkatu.



LASARTE-ORIAKO BIZIPOZA TALDEA

Bigarrenez elkartuko dira

Lasarte-Oriako Bizipoza taldeko lagunak jaialdia prestatzen ari dira kulturartekotasuna ardatz. Itakunenea elkartean egin zuten aurreneko batzar irekia, eta, "oinarriak" finkatu ostean, bigarren aldiz elkartuko dira han, apirilaren 2an, 19:00etan. "Denona eta denontzat maite dugulako herria, dugun jatorria dugula, batu gaitezen bizipozara! Denon artean elkarlanean jai egun ederra ospatuko dugul!", adierazi dute.

Udararako HEZITZAILE lan poltsa

Balaratuko da:

- Begirale edo zuzendari titulua
- C1 edo baliokidea den agina
- Ikasketak
- Esperientzia

Beharrezkoa da:

- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagina.

Praktikak gurekin egiteko

Jar zaitez gurekin harremanetan
begiraleak@itakun.eu

Itakunen parte izan nahi duzu?

Bete galdetegia: labur.eu/hezitzaileakuda25

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Udaberriari prestatu ezazu azala!

Zure azala motarentzat tratamendu egokiena aukeratu dugul

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria
Tel. 943-37 08 45

+ zerbitzu mistoa +



Udal ordezkariak eta Biyak Batekoak, hitzarmenaren sinatze agerraldian. TXINTXARRI

Adinekoen parte hartze aktiboa sustatzeko

Lasarte-Oriako Udalak eta Biyak Bat egoitzak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute; horren bitartez, udalerriko adinekoak dinamizatzeko eta horien parte hartzea sustatzeko jarduerak finantzatzeko dira. Bertan izan dira udal ordezkariak eta aipatu egoitzakoak

Txintxarri

2025eko abenduaren 31ra arte indarrean egongo da hitzarmena, eta agerraldian jakinarazi dutenez 15.000 eurorainoko udal ekarpena aurreikusten du. Laguntza ekonomiko horri esker, Biyak Batek urtean zehar garatzen dituen jardueren zati bat finantzatzeko du, udalerriko adinekoen ongizatea, parte hartze aktiboa eta gizarteratzea sustatzea helburu izanda.

Agustin Valdivia alkateak honako adierazpenok egin ditu: "Hitzarmen honek Biyak Batek egiten duen lana aitorzteaz gain, udalak elkarrekin sarearekin eta, bereziki, adinekoekin duen konpromisoa berresten du, gure komunitatearen funtsezko parte baitira". Halaber, nabarmendu du egoitzak sustatzen dituen jardueren kalitatea, aholkularitzatik hasi eta kultur tailerrak zein belaunaldiarteko topaguneak aurrera eramateraino.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Nuria Fernandezek, berriz, azpimarratu du herriko egunerokotasunean presentzia hain aktiboa duten elkarteekin eskutik lanean jarraitzearen garrantzia. Hala, jakinarazi du hitzarmena udalaren 2024-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren parte dela, eta interes publikokotzat aitortu du Biyak Batek "kohesio sozialaren eta zahartze aktiboaren alde" egiten duen lana.

Agerraldia amaitzeko, egoitzaren izenean bertako lehendakari den Lucia Muñozek hitz egin du, eta eskertu, erakundearen aldetik jasotako babesa.

2025erako jarduerak

Aipatu hitzarmenari esker, urte osoan zehar elkarrekin egotzian eta beste hainbat udal espaziotan egingo diren askotariko jarduerak finantzatzeko ditu Biyak Batek; horien artean, honako hauek nabarmendu dituzte:

Jarduera fisikoak eta osasun jarduerak; kultura eta aisia tailerrak; kultur irteerak eta txangoak; eta aholkularitza eta laguntza soziala.

Egun seinalatuak ospatzea, hala nola Nagusiaren Omenezko Egunaren, Eguberrien, Inauterien edota Kultur Astearen inguruko ekitaldiak antolatzea.

Udalarenak diren espazioak kostu gehigarri gabe erabiltzea ere zehazten du hitzarmenak. Eta egoitzak euskararen erabilerarekin duen konpromisoa eta genero berdintasunaren sustapena aurrera eramango dituen jarduera guztietan kontuan hartzea ere ezarzen du.

15.000 EURORA ARTEKO EKARPENA AURREIKUSTEN DU LANKIDETZAZ HITZARMENAK



NEURE KABUZ
GORKA ALVAREZ

Euskalduna naiz eta ez nago harro

Aspaldiko kantu famatu baten letra aldatuta, nahastuta dabilta azken hamarkadetan gure herriko eliteak euskararen erabilera eta babesa sustatzerako orduan. Euskalduna izateaz harro, hemendik kanpora euskaldun izatearen esportatzailetzat dute euren burua baina barruan euskal harrotasun folkloriko hori albo batetara utzi eta eurek gai "serioak" irizten dituztenetarako erabat alboratuta uzten dute euskara.

Nazka-nazka eginda. Aspertuta. Gogaituta. Irentsi ezinda. Horrela sentiarazten naute gure hizkuntzak egunerokoan jasaten dituen erasoek. Higuigarriak, deitoragarriak, botagurea sortzerainokoak dira azkenaldian, ez azken urteetan, ez; azken hamarkadetan; ezta ere. Betidanik, bai, betidanik euskarak eta euskal hiztunok pairatu behar izan ditugunak baina hau ez da ezer berria. Azkenaldian ordea, guk geuk, barrutik sortzen ditugu gurearekiko aurkaritza kanpainak, mespretxuak eta biraoak.

Garai batean, Nafarroa garaiko presidente baten hitzak eta ekintzak salatzen hasi ginen, gaur egun administraritzan orotan normalizatu den prozedura ohikoetara iritsi gara. Ez omen da euskara, ingelesaren pare jarri behar. Gaztelaniak izan behar omen du oinarritzko hizkuntza gure herrian eta euskara gehigarri, askotan exotikoa izango balitz bezala tratatzen hasiak gara jada hainbat eremutan. Tartean, gure herriko elite ekonomikoak agertzen dira jo ta su hizkuntzaren aurkakoak etengabe azaleratzen. Elite hauek, hizkuntzaren normalkuntza eredu beharko luketenak, azalean behinik behin, errealitate gordinean euskara etengabe gutxiesten baitute, ez dute inongo esfortzurik egiten hori bermatzeko eta oraindik larriagoa dena, publikoki euskara hutsaren pare uzteko hitzak plazaratzen dituzte komunikabideetan inongo lotsarik gabe, azken egunotan banketxe batetako arduradun nagusi batek egin duen moduan. Hitzetaz haratago, ekintzetara ere etengabe joz. Eliteak ez dira euskararen lagunak. Langileak eta bezeroak erakartze aldera hizkuntza erabili, kudeatu eta ondoren trapezu zikin baten moduan zaborretara botatzen dute erabilera bakarreko tresna bat izango balitz bezala.

Gaizki gabilta azkenaldian, herria ohartzen ari da, esnatzen, baina olagarroak tentakulu luzeak dauzka eta dena oso ongi lotuta ageri da goi esferetan. Zer egingo diogu ba", esaten dugun bitartean, eurak gure hizkuntza odolusten ari dira, utzikeriaren eta axolagabekeriaren bidea jorratuz. Momentuz hizkuntza herri xehearen ahotara mugatu nahian dabilta, gero eta espazio txikiagoetara mugatuz, murriztuz. Hurrengoak, familia eta lagunarteko bihurtaraztea izango da. Garai latzak datoz eta ez, ez zait iruditzen dramatizatzen ari naizenik. "Herriak salba dezake herria" esaldiak, kasu honetan, botere bikoitza hartzen duelakoan nago. Erabilera da hizkuntza batek indartzeko duen armarik boteretsuena. Ez dakienari irakasten, arrotza egiten zaionari erakargarri egiten eta kasu batzuetan hainbat eremutan beharra ikustarazteko ariketa horretan saiatzen ere bidea luzea daukagu. Batzuek ezkutatu nahi dutena erakusteko ordua iritsi da. Ez gaitzatela itsutu, ez gaitzatela bereziki isildu.

Erabili, bizi, irakatsi, landu, gozatu eta partekatu dezagun guztiona dena. EUSKARA.

txintxarri
NEURE KABUZ



TXINTXARRI-ko zutabegileek azken urteetan idatzi dituzten iritzi artikuluek irakurri ahalko dituzu kanal honetan:



Lasarteoriatarren jakin-mina piztu zuen Borobilean Elkartearen azken solasaldiak. TXINTXARRI

Esateko dutena entzutearen garrantziaz

Gazteen osasun mentala eta emozionalari buruz hausnartu dute dozenaka herritarrek, lau gonbidaturekin batera: Jone Murua, Aitor Lukas, Saioa Larruskain eta Oihan Agirretxe. Ohi bezala, irekia eta aberasgarria izan da ia bi orduko solasaldia

Txintxarri

Zaila da hitz gutxi batzuetan alezeara arazo horren zabal bat konpontzeko gakoak, baina Borobilean Elkartearen solasaldian parte hartu zuten adituek bide berbera hartu zuten, esaldi honekin labur azal daitekeena. "Entzun ditzagun gehiago gure gazteak".

Horretarako zerbitzu bat mar txan jarri dute Lasarte-Oriarekin muga egiten duen udalerrietako batean, Hernanin. "2023-2027 legegaldian Gazteria sailean hartuko dugun neurri garrantzitsuena da", azaldu du erakunde horretako ordezkari Aitor Lukasek. "Zerbitzua da, ez terapia. Helburua da buru osasunarekiko estigmak ezabatzea eta gazteak bide horretara hurbiltzea, hasierako artatze baten bidez".

Zerbitzu hori erabiltzea erabakitzen duten nerabe eta gazteak Jone Murua psikologoarengana joaten dira. "Etortzen diren askok esaten dute galduta daudela, ez dakitelako norengana jo gertatzen zaien eta sentitzen duten hori kontatzeko". Jorrazten ari diren egoeretako batzuk aipatu ditu: ansietatea, zalantzak eta urduritasuna ikasketen ha-

rira; prekaritateak eta etxetik joan ezinak eragindako frustrazioa; lagunarteko gatazkak; elikadura nahasmenduak...".

"Ikaratuta gaude irakaskuntzan". Esaldi kategoriko horrekin laburbildu du Usandizaga institutuko orientatzaile Saioa Larruskainek eremu horretan bizi dutena. 3. eta 4. DBHko zikloko 500 ikaslerekin lan egiten du herritarrek eta kontatu du "astero" ari direla protokolo berriak irekitzen: suizidioa, eskola jazarpena, indarkeria matxista, eta abar. Bi datu "lazarri" partekatu ditu segidan parean zituenekin: "18 urte arteko gazteen % 38 bakarrik sentitzen da, eta, % 65ak esaten du familian ez dela ulertua sentitzen".

Adin tarte ugaritako nerabe eta gazteekin lan egiten duen gizarte langileaz gain, Lasarte-Oriako Udaleko zinegotzi (EH Bildurekin) ere bada Oihan Agirretxe. Udalerriko egoeraren argazkia egin eta konponbide posible batzuk aletu ditu: udalaren baliabideak areagotzea, udal gobernuak lehentasunezko jotzea gai hori edota komunitatea eta hezkuntza indartzea.

ORIANTE BHI

BATXILERGOKO matrikulazio epea
MARTXOAK 31 - APIRILAK 11

- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetzaz
- Agenda 2030
- Orientazio akademikoa
- Ekintza osagarriak
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- Hezkuntzako eramangarriak doan

ZIENTZIAK ETA
TEKNOLOGIA

GIZA ETA
GIZARTE
ZIENTZIAK



ORIANTE
Institutua



ATE IREKIAK

APIRILAK 2, 17:30-18:30

LARREKOETXE eraikinean!

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa)

Buenos Aires aldapa 1, Lasarte-Oria

943 899 492

info@oriarte.eus

<https://oriarte.hezkuntza.net/>



Mobilizazioaren amaieran, adierazpen bat irakurri zuten Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimeneko ordezkariak. TXINTXARRI



Okendotik abiatuta, manifestazioa egin zuten herrian barrena. TXINTXARRI

Palestinaren alde hartu dute kalea, enegarrenez

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak deituta, manifestazioa egin dute. Okendo plazan elkartu, eta herrian barrena zabaldu dituzte euren aldarrikapenak; Israeliek su etena guztiz hautsi duela salatu dute. Komunikatu bat ere irakurri dute agerraldiaren amaieran

Txintxarri

Mobilizazio hori aurrera eraman dute Palestinarekin adostutako menia "erabat" apurto duelako Israeliek; aire erasoak ez ezik, lurrekoak ere berrekin die. Hori arbuiatu eta palestinarentzat "irtenbide justu bakarria" aldarrikatzeko batu dira, beste behin, dozenaka herritar, *Israel genozida* lelodun afixaren bueltan.

Okendo plazatik abiatu, eta leku berean amaitu dute mobilizazioa. Komunikatu bat ere irakurri dute deitzaileek, Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimeneko kideek. Azpimarratu dute 2025. urtea, iazkoaren modu berean hasi dutela palestinarek. Gaineratu dute, egunotan Gazan gertatutakoak iragarpenik okerrak baieztatu dituela, eta

aurretik hala izango zela jakin izanak, ez duela euren mina leundu.

Honako adierazpenok egin dituzte jarraian: "Bagenekien su-etena ez zela irtenbidea, irtenbide politikoa kolonizazioaren amaiera eta erakunde sionistaren desagertzea dela. Orain badakigu tregoa inperialismoaren maniobera bat zela, Trump AEBko bo-

terera iritsi zenean posizioak berrantolatzen. Menia instrumental zen eta Sirian inperialismoaren morroiak indartzeko helburua zuen, lurralde gehiago okupatuz, erresistentziaren ardatzaren aurrean bere babes eremua handitu ahal izateko. Baina, aldi berean, badakigu su-eten horrek beharrezko atseden humanitarioa ematen ziela gaztarrei".

Nabarmendu dute, ordea, arnasaldi hori, berriki amaitu dela, Gazako errefuxiatu guzteen aurkako erasoekin -500 palestinaren baina gehiago hil dituzte Gazan asteartetik hona, eta 900 zauritu baino gehiago eragin-. Horregatik, lasarteoriatarren maitasun eta elkartasuna bidaltzeko bat egin dute herritarrek deialdiarekin.

Herrian barrena zabaldu dituzte aldarriak mendebaldeko gobernuen belarrietara iristeko nahia ere agertu dute, horien artean, Ajouria

Eneakoa barne, "haiek ere sionismoaren beharrezko laguntzaileak izanik beraien diruarekin, teknologiarekin, armekin eta konplizitate politiko eta mediakoarekin Palestinako herria hiltzen ari direla". Hala, ohartarazi dute egun, Gazan Hiroshima-n halako lau lehergailu jaurti direla dagoneko eta gazatarrek Auschwitz-eko nazien kontzentrazio esparruek baino egoera okerragoa pairatzen ari direla. Azaldu dute, hori guztia mendebaldeko gobernuak eta oligarkiek interesa dutelako gertatzen ari dela: "Beste batzuetan esan izan dugun bezala, Israelgo erakunde sionista argi eta garbi mendebaldeak eskualde horretan duen proiektu koloniala da".

Agerraldia amaitzeko, ozen aldarrikatu dute palestinarentzat "irtenbide justu bakarria ibaitik itsasorainoko deskolonizazioa, apartheid sionistaren egiturak desagetea eta errefuxiatuak beren etxeetara itzultzea" dela.

Absurdoa ere, gozagarri

Formakuntza Iraunkorra izeneko ekimena burutzen du Danok Kide elkarteak, eta, horren barruan, *La cantante calva* antzezlan ekarri du berriki Teatro Estudio San Sebastian konpainiak, kultur etxera. Herritarrek lepo bete dute aretoa Eugene Ionesco egile errumaniarraren jatorrizko lanaren bertsioaz gozatzeko. Molde klasikoak aldendu eta absurdoaren antzerkia egin zuen 50. hamarkadan.



TXINTXARRI

Pentsiodunek azken sinadura bilketa egingo dute apirilaren 4an

Pentsiodunek Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (1.184 euro) parekatu nahi dituzte hilero jasotzen dituzten ordainsariak, eta, gai hori lehen lerroan jartze aldera, HEL Herri Ekimen Legegilea deritzon ekimena ondu dute. Azken hilabeteetan hori babesteko sinadurak biltzen ari dira han eta hemen, baita Lasarte-Oria ere, hori dinamiza-

tzeko ardura hartu duen talde bati esker.

Herritar horiek lanean hasi zirenetik 1.200 atxikimendu jaso dituzte udalerrian eta azken bilketa ekitaldi bat egingo dutela iragarri dute. Apirilaren 4an, 18:00etatik 21:00etara, mahai bana jarriko dute Ola kalean, Okendo plazan eta Euskotren geltoki sarreran. HEL babestu nahi dutenek 18 urte izan behar dituzte gutxienez, eta, sinatzerako unean, nortasun agiria aurkeztu.

Barrikotean zein musean, bietan ederki

Sagardotegi denboraldiko menua dastatu dute Extremadura Etxean, txotx! egin eta sagardo freskoa edan bitartean. Saustatxo elkartean, berriz, enbido eta hordagoka aritu dira zenbait bikote, karta jokoan hasi aurretik babarruna goxoak janda

Txintxarri

Arratsaldeko ordubietan hitzordua jarrita, eguraldi goibelak ez zuen giroa apaldu. Sagardo freskoz betetako kupela Extremadura Etxeko egoitzako terrazan jarrita, edalontziak bete eta hustu egin zituzten ospakizun osoan zehar. Bazkariarekin hasi aurretik, Bereziartua sagardoaz betetako upela estreinatuta zuten. Bien bitartean, otorduko jakiak kozinatzen aritu ziren, sukaldean; hasteko, bakailao tortilla, eta, ondoren, albardatutako bakailaoa piper berde erreekin. Barrikotera joandako 86 lagunak euren eserlekuetan jesarri bitartean, sukaldariak parrillan erretzeko

pronto jarri zituzten hainbat txuleta. Sardeska eta labanak ez ezik, jateko barreak eta pasadi-
zoak ere beharrezkoak izan ziren.

Amaitzeko, intxaurrak eta gazta jan zituzten. Bapo janda eta ederki ongi pasata, festak kasik afalordura arte iraun zuten. Dagoeneko hurrengo urteko zitari begirako atzerako kontaketa hasi dute Extremadura Etxekoek.

Tradizioari eusten

Bakailaoa osagai duten jakiak eta txuletak jatea bezain erakar-
garria izan daiteke babarrun goxo eta bero eltzekada bat, sakramentu (txorizoa, odolkia

edota txerri saiheskiak) eta guzti. Menu horren alde egin zuten Saustatxo elkartera bertaratu-
tako 21 lagunek. Bazkalostean, digestioa egiteko, mus txapelketa jokatu zuten horietatik hemezortzik, bederatzi bikote osatuta. Enbido eta hordagoka hasitakoan lehia kutsua hartu zuten ekimenak, baina ez zuten unek bakar batean ere ahaztu lagunartean ari zirela.

Carlos eta Quique izan ziren txapeldunak, finalean Borja eta Alex garaituta. Agustín eta Javi sailkatu ziren hirugarren postuan, eta, laugarren tokian, berriz, Angel eta Antonio geratu ziren.



Kuadrilla bat, barrikotean, topa egiten. TXINTXARRI



Bederatzi bikote egin zituzten mus txapelketa jokatzeko. TXINTXARRI

Adin txikiko pertsona askok harrera-familia bat behar dute. Eta familia askok erantzuna eman diezaiokete egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdin duelako. Garrantzitsuen delako, bakarrik haziko den adin txikikorik ez egotea. Deitu ezazu.

GIPUZKOA
Foru Aldundia



682554433





Hunka herritar batu dira LOOPAK egindako azken deialdira. Herriko osasun zentroaren "egoera larria" salatu dute. TXINTXARRI

Egoera "larria" dela salatu dute oraingoan ere

LOOPA plataformak deituta, mobilizazio berria aurrera eraman dute lasarteoriatarrek. Hunka herritarrek bat egin dute deialdiarekin, eta aurrerantzean, "beharrezkoa izateari utzi arte" hala jarraituko dutela ozen adierazi dute

Txintxarri

Anbulatorioan elkartu eta Okendora arteko bidea egin dute herritarrek herriko osasun zentroaren egoera larria ikusarazi eta salatzeke. Ibilbide isila izan den arren, Okendo plazara iritsi, eta deialdiarekin bat egin duten guztiak bildu ostean, LOOPAko bi ordezkari hartu dute

hitza; komunikatua irakurri dute.

Iragan asteazkenean, hilak 19, Lasarte-Oriako ambulatorioan mediku bakarra egon zela gogorarazi dute lehenik, eta azpimarratu, horrek egoeraren larritasuna erakusten duela: "Alarma guztiak piztuta egon beharko liriteke: ia 20.000 biztanle dituen herri batean me-

diku bakarra egoteak esan nahi duena da, alde batetik, oinarriko osasun eskubidea errespetatzen ez dela; baina, batez ere, esan nahi duena da herritarren bizitza arrisku larrian jartzen ari dela, argi eta garbi. Mediku bakarra egonda, halako batean bi kasu larriak suertatuz gero, arrisku handia dago modu dramatikoan bukatzeko".

Ostean, aipatu plataformak iragan hilabetean egindako agerraldia ere oroitu dute; azaldu dute herriko osasun zentroko zuzendaritzari bilera eskatu ziotela. Horri dagokionez, jakinarazi dute gaur-gaurkoz ez dutela inolako erantzunik jaso: "Beste behin ere, Osakidetzako arduradunek isiltasuna aukeratu dute, sufritzen dugun egoeraren benetakoa tamaina ezkutatzeke beharraz jabetuta agian. Gardentasun falta adierazgarri hau ez dator bat zerbitzari publikoek herritarrei zor dieten errespetuarekin".

Bilera eskaera horrez gain, hil honetako udalbatzarrean eztabaidatu den plataformaren mozioaz ere mintzatu dira. Bertan egindako eskakizunak gogora ekartzearekin batera, horrek izandako babes faltak sortu duen "mina" ere agertu dute: "Mingarria gertatu zaigu pleno horretan hainbat hamarkadatan Osakidetza kudeatu duten eta, ondorioz, gaur sufritzen dugun egoeraren erantzule diren ordezkarietara entzutea". Gauzak horrela, EAJko ordezkari politikoak udalbatzarrean esandakoak gogorarazi dituzte: "Ez du zentzurik mozio bat aurkezteak Udalak Sailburuarekin hitzordu bat eskatzeko edo udalerriari dagokion egoeraren jarraipena egiteko, hori baita udalak, berez, egin behar duena". Adierazpen horiei dagokionez, plataformako kideek esan dute ados egon daitezkeela, baina azpimarratu dute, udalak Osakidetzako arduradunekin biltzeko pausoa eman duela, soilik LOOPAK mozioak aurkeztu edota manifestazioak deitu ondoren. Hori hala izanik, nabarmendu dute "erabateko zentzua" duela mozioak aurkezteak, manifestazioak deitzeak edota

horrelako giza kateak egiteak. Gaineratu dute horrela jarraituko dutela beharrezkoa den bitartean.

Pasibotasunik ez

Mozioari atzera bota eta egun gutxira, errealitateak "arrazoia eman" diela ere adierazi dute: Talka plan baten premia behar aldarrikatu dute, baita egoera zaurgarrian dauden familiei laguntza mekanismoak bilatzeko ere: "Alerta gorrian gaude. Arrisku handiko egoera. Joan den asteazkenean gertatu zena edozein momentuan errepika daiteke ondorio dramatikoak sortuz, ez epe ertain edo luzean bakarrik, baita berehalako epean ere".

Horregatik guztiagatik, eta egoera larria dela kontuan hartuz, pasibotasunik ez duela balioa argi azaldu dute plataformako kideek, eta gaineratu, momentuaren larritasunak "erreakzionatzea, irtenbideak bilatzea eta erantzutea" eskatzen duela. Eta hain zuzen ere, horixe bera eskatu diete alderdi politiko eta sozialei: "Bakoitzak bere jardun eremutik eta duen kudeaketa boteretik modu aktiboak jardun dezatela, kalitateko osasun publikoaren alde". Nola ez, dei berbera egin diete herrikide guztiei ere: "Zuen eskubideak defendatu eta mobilizatu zaitezte. Bizitza dugu joan".

Amaitzeko, oroitarazi dute Agustin Valdivia alkatea Gasteizen bildu dela Osakidetzako Zuzendari Nagusiarekin (azpiko artikuluan daude adierazpenak). Horrekin batera, ez dute aipatu gabe utzi iragan asteazkenean, hilaren 19an, LOOPAK osasun sailburuari eta Osakidetzako zuzendariari bidali zion jakinarazpena.

Osakidetzako zuzendariarekin hitz egindakoak

Osakidetzako zuzendari Susana Lopez Altunarekin bildu da, berriki, Agustin Valdivia alkatea. Bilkura horretan hitz egindako gai nabarmenenen berri emateko, adierazpen labur batzuk bidali ditu TXINTXARRI-ren erredakziora.

Valdiviak azaldu du Osakidetzako zuzendariak adierazi diola Lasarte-Oriara osasun profesionalak etor daitezela "aktiboki lanean" ari direla. Horrez gain, maiatz amaieran

edo ekain hasieran ebatziko den LEP lan eskaintza publiko bat martxan dagoela ere aipatu du, eta, gaineratu, horren bitartez plaza guztiak betetzea lortzen ez bada, "erreskate izaerako beste lan eskaintza publiko bat" egingo dutela uztailaren bide horretatik plaza guztiak betetzea lortzeko helburuarekin. Azkenik, kontatu du mediku egoiliarrek MIR azterketa amaitu baino bi hilabete lehenago

lanean hasteko aukera ere aztertzen ari direla.

Herritarren kexa, "argi"

Bilera horretan lasarteoriatarren kexa "argi" geratu dela ere azaldu du alkatea, egoera "sostengaezina" dela eta "ezin dela horrela jarraitu". Adierazpenarekin amaitzeko, nabarmendu du "beti borrokatuko duela herritarren interesen defentsan".



Herriko osasun zentroaren arxiboko irudia. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Lehenago edo geroago bizirik gauden guztioi iritsiko zaigun uneaz, heriotzaz hitz egiteko gonbidapena egin dute zainketa aringarrietako osasun langile Eli Elizegi eta Iñigo Suberbiola lasarteoriatarrek. Arrieskalleta elkartearen ariko dira, apirilaren lehen, 18:00etatik aurrera.

'Hitz egin dezagun... heriotzaz bizitzatik' izenburua jarri diozue hitzaldiari. Gonbidapen kutsua du. Nondik dator ideia?

Eli Elizegi: Gure egunerokotasunean, dugun lanagatik, pila bat zalantza helarazten dizkigute eta horiek argitzen saiatzen gara. Aurretiazko borondatea, zainketa aringarriak, eutanasia... mugitzen ari diren gaiak dira eta sarritan nahastu egiten dituzte kontzeptu horiek. Izenburu hori jarri diogu solasaldiari, ba, bizirik gaudelako eta horri buruz hitz egin behar dugulako. Beldurra, antsietatea edota iluntasuna eragiten ditu jende askorengan eta uste dugu komeni dela normaltasunez bizitzea. Azken finean, gutako bakoitza eta inguruan ditugun guztiok hilko gara egunen batean.

Zeintzuk dira egunero zuekin partekatzen dituzten zalantzak?

Iñigo Suberbiola: Ba, adibidez, paziente bati morfina ematera joan eta berak 'nik ez dut hil nahi' erantzutea. Ez, ez, guk egin nahi dugun bakarra da orain arte baretu ezin izan dugun oinazea arintzea, besterik gabe. Pertsona guzti-guztiek ez dituzte horrelakoak esaten baina egia da askotan entzuten ditugula.

Erraza egiten al zaigu heriotzaz pentsatzea?

E.E.: Badirudi egoera terminal batean egon behar dugula heriotzari buruzko gauzak argi izan eta horri buruz hausnartzeko, eta ez, justu kontrakoa da: muga horretara iritsi aurretik gogoeta egina badugu, alde ederrean guretzat, senideontzat eta osasun langileontzat.

Gai tabu bat da? Zergatik?

E.E.: Badirudi gauza bat begien aurrean ikusten ez badugu ez dela gertatzen eta hori ez da horrela.

I.S.: Normalak diren gauzak ikustea saihestea ez da naturala. Heriotzarekiko edukazio, transmisio eta naturaltasun falta dago. Hortik etortzen dira gai horrekiko tabuak, iluntasunak eta bestelakoak.

"Heriotzari buruzko dudak argitzen saiatuko gara, elkarrekin"

ELI ELIZEGI ETA IÑIGO SUBERBIOLA ZAINKETA ARINGARRIETAKO OSASUN LANGILEAK Hiltzeaz mintzatzea "naturala eta beharrezkoa" dela uste dute bi herritarrek. Are gehiago, ariketa horrek bizitzari beste dimentsio bat ematen diolakoan daude



Herritarrekin hitz egiteko irrikaz daude Elizegi eta Suberbiola. TXINTXARRI

Ogibide gogorra al da zainketa aringarrietako osasun langileena?

E.E.: Lan oso eskertua da.

I.S.: Batez ere, sakona dela esango nuke. Gogorra ere bada une jakin batzuetan, paziente gazteegi hil delako, adibidez. Edota pertsona asko sufritu ostean joan delako, senitarteko edo lagun baten pareko harremana egin duzulako berarekin... Hala ere, txapela kentzeko une asko ere bizitzen ditugu, eta, nik, momentuz, ez dut ogibidez aldatzeko asmorik. Artatzen ditugun pertsonak beraien bizitzeko une oso garrantzitsuetan ezagutzen ditugu eta bide horretan laguntzeko gai bagara... Horixe da kontua.

E.E.: Guztiek uste dute oso gogorra, bortitza eta iluna izango direla hiltzeko unea eta horrainoko bidea baina ohartzen direnean ezetz, heriotza onak ere

"HERIOTZAREKIKO EDUKAZIO, TRANSMISIO ETA NATURALTASUN FALTA DAGO"

"JENDEA OHARTZEN DENEAN HERIOTZA ONAK ERE BADIRELA, IZUGARRIZKO ESKER ONA ADIERAZTEN DU"

badaudela, izugarritzko esker ona adierazten dute. Erabat beltza zirudien egoera baten barruan argia ikusten dutenean... Zuk horretan lagundu duzula sentitzeak asko betetzen du, satisfazioa ikaragarria da.

Zergatik erabaki zenuten lanbide horretan hastea?

E.E.: Ikasketak bukatu eta berehala *erori* nintzen zerbitzu horretan eta maitemindu egin ninduen. Hor hasi aurretik ikasgaiaren batean oso-oso zeharka landu genuen doluaren gaia, adibidez, baina ez nekien ezer. Lan egin bitartean ikasi dut jakin beharrek den-dena. Zainketa aringarrietan dihardut, baina, azken urteetan, ospitalean. Atzera begirata, eskerrak etxetik etxekoan hasi nintzen.

I.S.: Familia medikua naiz ni eta formatzeko garaian izan nuen harremana zainketa aringarrietako etxetik zerbitzuarekin, hilabete pare batez-edo. Ez nintzen berehala maitemindu zu bezala, Eli, baina arreta deitu zidan eta buruan nebilkien, lanik gabe nengoen garai batean ez dakit zein kable gurutzatu eta deitzea erabaki nuen arte. Zuk erantzun zenidan, gainera! Herrikoak gara biak baina ez genuen elkar ezagutzen. Esan zenidan arratsalde zela eta berri deitzeko hurrengo goizean, nagusiekin hitz egiteko. Lanean hasi nintzen, eta gaur arte.

E.E.: Oso polita da zerbitzu horretako giroa, bertan lan egin izan dugunok elkarri erakusteko, laguntzeko eta zaintzeko filosofia izan dugu beti.

Amaitzeko, nola animatu herritarrek hitzaldira bertaratzera?

I.S.: Heriotzari buruzko dudak argitzen saiatuko gara, elkarrekin. Denok ditugu zalantzak, osasun langileok ere bai. Guk gauza asko esplikatzen dizkiegu artatzen ditugun pertsonen baina beraiek guri ere bai eta asko ikasi ohi dugu. Beraz, etortzen den edonork egingo du ekarpena, ziur.

E.E.: Gure asmoa ez da kontzeptu teknikoetan gehiegi sakontzea eta aldebakarreko solasaldi bat izatea. Heriotzari buruz lasai eta askatasunez hitz egiteko aukera polita dela uste dugu. Lehen zatian testuinguruan jarriko dugu gaia, eta, hortik aurrera, elkarrekin hitz egitea gustatuko litzaiguke.

Judokek, domina uzta Gipuzkoako txapelketan

LOKEko judoka gazteek kadete zein infantil mailako Gipuzkoako txapelketak lehiatu dituzte Urnietan. Ederki jardun dira eta hamabi domina janzteaz gain, saridunek apiril hasieran jokatu den Euskadiko txapelketarako txartela lortu dute

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko judoka gazteek kadete zein infantil mailako Gipuzkoako txapelketari egin diete aurre hila-ren 22an eta 23an, Urnietan.

Guztiek ederki egin zuten borroka euren maila eta pisuetan. Ondorioz, lehen postuetan sail-



Kadete mailako judokak. LOKE JUDO

katu ziren eta LOKEko hamabi kide igo ziren podiumera domina jasotzera (Ikus beheko koadroa).

Garaikurra lortu zuten judokak, gainera, apirilaren 5ean Gasteizen jokatu den Euskadiko txapelketan izango dira parte hartzen.



Eszerrean, Manso (zuriz) podiumean; eskuinean, Muga. EAF-FVE

Manso eta Muga, Andatzatik Aiara igoerako podiumean

Manso sailkapen orokorreko hirugarren eta 9. mailako garaile izan da; Mugak 6. mailako garaikurra eskuratu du

Txintxarri

Eguraldia izan zen protagonista Euskadiko Mendi igoeren lehen lehian. Andatzatik Aiara lehiatu ziren gidari zein taldeek lan ederra izan zuten kotxeak egoerara moldatzeko. Entrenamentuetan lur bustiarekin gidatu behar izan zuten, baina lehen saio kronometraturako ibilbideko eremu handi bat lehortzen joan zen eta horrek igoera ikusgarriak ahalbideratu

zitu. Bigarren igoeran, aldiz, euria hasi zuen eta gidariek ezin izan zituzten lehen probako markak gaintitu.

Joseba Iraola bizkaitarra izan zen garailea eta horrekin batera, hirugarren mailan Aitor Manso herritarra izan zen. Lasarte-Oriako gidariak, gainera, 9. mailako garaikurra eskuratu zuen. Pablo Muga zubietarra ere podiumeko gorenean izan zen 6. mailan.

Infantil mailako emaitzak

- Marco Iriso 1º
- Ariana Mendoza 2º
- Sofia Pozo 2º
- Ariane Luis 3º
- Ainitze Tabuzzi 3º
- Alejandro Arevalillo 3º

- Crystal Vallejo 3º
- Alba Padrones 3º
- Ivan Barrantes 5º

* Beltzez podiumeko postuak

Kadete mailako emaitzak

- Unai Curiel 2º
- Iraia Diez 2º
- Anne Linazasoro 2º
- Isabella Bondar 3º
- Francis Mihail 5º
- Iago Izquierdo 5º

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - OIartzun KE B Igandea. 17:30. Michelin kirol gunean.
GORENGO MAILA
Sanpedrotarra FE - Ostadar SKT Igandea. 15:30. Trintxer, Pasaian.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Ast. Mundarro FKE B Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.
Orioko FI B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 19:00. Mendibeltz, Orion.
OJM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Lengokoak SD Igandea. 15:30. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Iiintxa SD Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, IGOERA
Texas Lasartearra CF B - Behobia CD Igandea. 11:40. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Urnieta KE B Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Ostadar SKT C - Ikasberri KE B Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunean.
OKM, JAITSIERA
Tolosa CF B - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Usabal, Tolosan.
K. I. MAILA, KOPA

Ostadar SKT - Kostkas CD E Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.
Antigua Luben KE - Ostadar SKT (neskak) Igandea. 09:00. Berjo, Donostian.
Elgoibar CD C - Texas Lasartearra CF Igandea. 12:00. Miñtxeta, Elgoibarren.
K. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Internacional CD C - Ostadar SKT C Larunbata. 15:00. Matigoxotegi, Donostian.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Tiakun AFKK Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA, KOPA
Madragora Garagar. - Eguzki ISU Leihoak Igandea. 10:30. Pio Baroka kirol., Donostian.
GAZTEEN MAILA
Lauburu KE Ibarra B - Eguzki Bodegas Ayesa Larunbata. 11:15. Belabieta kirol., Ibarra.
KADETE MAILA
Eguzki Goxokis Goxua - Lauburu KE Ibarra Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunea pil.
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Erkidegoen Selezioen arteko Espainiako txapelketa jokatu da eta Eguzki Aretu Futbol eskoleko lau kidek 12 eta 14 urte azpiko Euskadiko taldean jokatzeko aurkera handiak dituzte.
Apirilaren 2tik Gra. Blanes, Katalunian.
SASKIBALOA
II. MAILA

ZAST Oak - Ostadar SKT Igandea. 18:15. Aritzatalde kirol., Zarautzen.
III. MAILA
Ostadar SKT - Zurrut Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
CDB Erroibide - Ostadar Beltza Larunbata. 16:00. Azken Portu kirol., Iruen.
Bera Bera Ricardo I. - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Manteo kirol., Donostian.
EUSKAL LIGA, KADETEA
Urrategi Barne Diseinua - Ostadar Alvite Arquitectura Igandea. 11:15. Azpeitiko kiroldegian.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
Eskoriatza KE - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - CD Internacional Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Tolobolei - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Usabal kirol., Tolosan
KADETE MAILA, GIP. TX., PLAY OFF
La Asuncion Isukaiz A - Ostadar SKT B Larunbata. 10:15. La Asuncion ik., Donostian.
KADETE MAILA, 32.-36. POSTUAK
Ostadar SKT A - Usurbil Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
PILOTA

INF. I. MAILA, EKIALDEKO FINALA
Hernani 1 - Intza Ostirala. 17:45 (2. partida). Zizurkilen.
INFANTIL M., BAKARKA, NESKAK
Zazpi Iturri - Intza (Iparragirre) Ostirala. 19:00 (1. partida). Amezketan.
IGERIKETA
KLUBEN ARTEKO KOPA
Buruntzaldea IKTKo infantil, junior zein absolutu mailako kideak Gipuzkoako Kluben Arteko Kopan izango dira igerian. Larunbata eta igandea. Usabal kirol., Tolosan.
ALEBIN TEKNIFIKAZIOA
Buruntzaldea IKTKo Aitor Ormazabal Gipuzkoako Igeriketa Federazioak antolatutako alebin mailako 2. teknifikazio saioan parte hartuko du. Larunbata. Goiza. Paco Yoldi kirol., Donostian.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Urbealde Mungia Larunbata. 16:00. Atsoabakar kirol gunean.
ESPAINIAKO TXAPELKETA
18 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldeak Espainiako txapelketa jokatu du. CP Les Abelles, CRC Pozuelo eta Barça Rugby izango ditu aurkari. Larunbata eta igandea. Valentzian.
16 URTEZ AZPIKOA
Universitario Bilbao Rugby B - Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 12:00. Bilbon.
ATLETISMOA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA
Ostadar SKTKo infantil eta alebinek bakarkako Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldian parte hartuko dute. Igandea. Goiza. Iruen.
JUDO
ESPAINIAKO TXAPELKETA
LOKEko Suhar Aristegi judokak junior mailako Espainiako txapelketa lehiatu du. Larunbata. Iruñea, Nafarroan.
XAKEA
II. MAILA, IGOERA
Txaturanga - Taula A Larunbata. 16:00. Mutrikun.
LASTERKETA
AZKOITIA AZPEITIA
Lasarte-Oriako lasterkariak Diego Garcariaren oroimenzkoa den 32. Azkoitia Azpeitia maratoi erdia eta 8 km-tako proba lehiatu dituzte. Larunbata. 16:15. Azkoitia.
HIPODROMOA
UDABERRIKO DENB.
Udaberriko denboraldiko lehen jardunaldia jokatu da. Asteazkena 2. 11:05. Hipodromoa, Donostian.

Lasarte-Oria ere abor- datu du pirata moreak

Fibromialgia Gipuzkoako mapan jarri duen itzulia egin du Beñat Garcia Escribanok. Harekin hitz egin dugu 200 kilometrotako erronka nola joan den jakiteko

Txintxarri

Fibromialgia abor-
datzen egitas-
moaren barruan, gaixotasun hori ikusarazteko eta ikerketara baliabideak bideratzeko ekimen ikusgarria aurrera eramane du Beñat Garcia Escribano herritarra: Gipuzkoa osoan barrena itzulia. Oinez edo lasterka, Donostia eta Asteasu artean dauden 200 kilometroak urratu zituen hilaren 21etik 23ra more koloreko bandera lau haizetara erakutsi duen piratak.

Erronkako biharamuna pasata erronkaren irakurketa positiboa egin du Garciak, "ikaragarri ondo joan zen guztia. Pozik eta harro nago egindakoarekin. Lanak fruituak eman eta Gipuzkoa osoan



Okendo igarotzen. TXINTXARRI

zehar oihu egin dugulako, jendeak entzun gaituelako eta fibromialgia mapan jarri dugulako".

Hilaren 21ean Donostiako Bulebarretik atera zen eta bertan jende pila batu zela azaldu digu: "Pasilloa egin zidaten bulebarretik atera nintzenean, soinu egin ez. Oso hunkigarria izan zen".

Ez zuen bidea bakarrik egin laguntzaile talde bat izan zuen eta jendea ere animatu zen berarekin bidea egitera: "Hamargarren kilometroan hasi zen jendea batzen, Lezoko Mendi taldeko kide batzuk izan ziren eta bidean zehar ere beste puntu batzuetan izan zen jendea.

Lasarte-Oriatik barrena

Garcia goizeko seiak jota iritsi zen Zabaleta auzora. Buenos Aires aldapatik jaitsi, Kalbario bi-

detik sartu eta Okendo plazarantz egin zuen. Ezusteko polita jaso zuen bertan Garciak, izan ere, petardo eta argiekin zain zituen zenbait senide eta lagun. Kuadrillan zeharkatu zuen enparantza.

Erritmo onean abor-
datu zuen gure herria piratak, presarik gabe baina martxari eutsita. Hipodromoko zubia zeharkatu aurretik "aupa Lasarte!" esan, gure herria zeharkatzen lagundu ziotenei eskerrak eman eta Usurbilerantz egin zuen, Gipuzkoako herri eta hiriak abor-
datzen jarraitzeko prest.

Pirata moreak azaldu duenez, "Lasarte-Oriatik igarotzean, espero nuen bezala familia eta lagunak bildu ziren. Ez zen ordu ona goizeko bostak eta seiak aldera igaro behar nintzen. Baina bildu zen taldetxo bengalekin eta suzirik irudi eta animo ederrak eman zizkidaten. Ehun pertsona bezala kontatu zuten".

Lasarte-Oria igaro zuen momentuko irudi eta kronika gure webgunean eskuragarri dituzue.

Amaiera hunkigarria

Bidean arazo handirik izan ez zuela adierazi digu Garciak, "mo-

mentuan irtenbidea eman ahal zitzaizkien gauzak". Hala nola, oinetan zauriak egitea edo triapak platano eta zopa bakarrik onartzea.

Horiei aurre egin eta Asteasu-
ra ongi babestuta iritsi zela jakite-
ra eman digu: "Tolosa igarotzean nire atzean jendea biltzen joan zen eta Villabona pasa ostean, Asteasurako bidean ehunera edo iritsiko ginen". Asteasuko plazan helmuga pirata moreak eta harrera "oso hunkigarria eta ikaragarria" izan zela aipatu du: "Plaza jendez beteta zegoen. Aurreratu dantzan zidaten, txapela eman... Oso hunkigarria izan zen eta pozik nago".

Erronkaren oihartzuna handia izan bada ere, Garciak aipatu modura, "gurpila ez da etengo, indarrak uzten duten arte. Ez da azken erronka izango". Eta horren harira, aurreratu duenez, Gipuzkoako itzuliaren gaineko dokumentala prestatuko dute.

Azkenik, eskerrak eman nahi izan die babesle izan dituen udal eta merkatariei eta era berezian, erronkan laguntzaile eta atzeko lan guztietan egon direnei ere: "Ezinbestekoak izan dira erronkan zehar eta perfektu egin dute".

LABORAL Kutxa eta AMA Tolosa aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.



Eta, espirtu horrek bultzatuta, oso zozketa berezia egingo dugu:

AMA Tolosako 4 esperientzia gastronomiko eta 2 lagunentzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu batean*.



HARTU PARTE HEMEN:

laboralkutxa.com/eu/
babesleak-ama-tolosa



*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa. AMA Tolosa jatetxeko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 lagunentzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 lagunentzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.

LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

LOKEko gimnastak, ederki eskolartekoan

Eskolarteko txapelketako bigarren fasea gainditu dute LOKEko kirolari gazteek. Bakarkako gimnastek zein taldeek finalerako sailkapena eskuratu dute, batek izan ezik. Amateur mailan ere guztiek borrokatuko dute azken lehian podiumean egoteko

Txintxarri

Eskolarteko txapelketako bigarren fasea lehiatu zen hilaren 22an eta 23an Donostiako Carmelo Balda kiroldegian.

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) infantil eta alebinak ederki egin zuten lan tapizean eta emaitza ederrak izan ziren.

Aipatzekoak dira bakarka alebin mailan Ariane Rodriguezek lortutako bigarren postua eta Aiala Jimenezek zein Laia Suberbiolak infantil A mailan eskuratutako lehen eta hirugarren postuak, hurrenez hurren.

Emaitza horiek direla-eta, alebin mailako Landaberri P taldea izan ezik, guztiek Gipuzkoako txapel-



Eskolarteko bigarren fasean lehiatu diren bakarkako gimnastak. LOKE GIMNASTIKA

ketarako sailkapena eskuratu dute (ikus ondoko koadroa).

Amateurrek ere, sailkatuta

Aurreko zenbakian ezin izan genuen Amateur mailako sailkapena ziurtatu, baina LOKEko arduradunek jakitera eman digutenez, kategoria horretako kideak ere Gipuzkoako finalean izango dira. Ondoko taulan maila horretako azken sailkapena ikus dezakezue.

Hori guztia dela-eta, pozarren daude LOKEko prestatzaileak eta maiatzean izango dituzten hitzordu garrantzitsuak prestatzeko gogor lan egingo dutela aurreratu dute.

Ostadar SKTko kadete taldeek aurkariak garaitu dituzte etxean

Urdin beltzen ordezkariak Ipar Titanak A eta Mayumi taldeak gainditu dituzte 3-0ko emaitzarekin

Txintxarri

Boleiboleko Gipuzkoako txapelketa aurrera doa. Kadete mailako taldeek fase aldaketa izan dute eta Ostadar SKTko ordezkariak egoera ezberdinetan daude. Kadete B liga lehiatuko duten taldeak erabakiko duten sailkapen fasea jokatzen ari da; A ekipoa, aldiz, sailkapeneko 33 eta 36 postuen arteko lehian ari da. Bi taldeek Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zuten azken jardunaldia eta emaitza bera eskuratu zuten, 3-0 irabazi zuten.

Urdin beltzen B taldeko kideek sailkapen faseko bigarren hitzorduari egin zioten aurre. Lehenean galdu ostean, Ipar Titanak A Donostiako taldearen aurka garaipenaren bila atera ziren herritarrek. Ederki borrokatuta 25-19, 25-18 eta 25-21 gailendu zen etxeko taldea.

Horri esker, puntuak eskuratu eta lehian mantendu da herriko



Ostadar eta Ipar Titanak lehian. TXINTXARRI

B ordezkaria. Izan ere, fase berri horretan lau taldeko lau multzo egin dira. Horiak bi itzuliko liga jokatu dute eta lehen sailkatuak Gipuzkoako txapelketako finalerdiak jokatu dituzte.

A taldeak ere bi itzuliko liga jokatu du sailkapeneko 33 eta 36 postuak erabakitzeke. Fase berriko lehen jardunaldian, Mayumi izan zuen aurrez aurre eta hasieratik nagusi izan zen talde urdin beltzeko ordezkaria; 25-9, 25-19 eta 25-16 irabazi zuten.

Beste emaitzak

Ez ziren horiek Ostadar Boleibola saileko kideek borrokatutako bakarrak izan.

Senior mailako taldeak ere etxean jokatu eta Vendetta taldearen aurka garaipena erdietsi zuten, 3-1 (25-14, 25-21, 22-25 eta 25-22).

Jubenil eta infantilek, aldiz, ezin izan zuten kanpoan euren aurkaria gainditu. Biek emaitza bere eskuratu zuten jokoei dagokionez, 3-1, baina lehiaren nondik norakoak ezberdinak izan ziren. Jubenilak Hernaniren aurka ederki borrokatu eta markagailuan aurreratu arren, ezin izan zuten aurkaria gainditu (23-25, 25-16, 25-23 eta 25-10).

Infantilen kasuan, Aiztondo NKT 2 izan zen garaile, baina bigarren eta hirugarren setean gogor lan egin zuten urdin beltzek neurketari itzulua emateko (25-16, 25-23, 24-26 eta 25-16).

Taula B taldeak ezin izan du Anaitasuna Kakute B garaitu

Lasarte-Oriako ordezkaria II. mailako txapeldunorde da. Taula Ak, aldiz, bi puntu gehiago eskuratu ditu igoera fasean

Txintxarri

Taula B taldea Gipuzkoako txapeldunorde da. Maila igoera lortuta, txapelak ihes egin dio Lasarte-Oriako taldeari. Hilaren 22an, Anaitasuna Kakute B izan zuen aurrez aurre bere mailako finalean.

Blas de Lezoko lokalean jokatu zen hitzorduan 1-3 gailendu ziren azkoitiarrak. Herritarrek ederki ahalegindu arren, bi neurketa berdindu (Alejandro Sanchez eta Juan Luis Varela) eta bi galdu zituzten Taulako ordezkariak (Victor Alvaro eta Juan Cruz Figueras).

Bi puntu gehitu

II. mailako igoera lehiatzen ari den Taula A taldeari dagokionez, Blas de Lezoko lokalean jokatu zuten Legazpiko taldearen aurka eta bina puntu eskuratu zituzten taldeek. Erlantz Sanchezek garaipena eskuratu zuen bere partidari,



III. mailako finala jokoan. ANAITASUNA KAKUTE

Miguel Maria Barojak eta Iñaki Etxeberriak parra egin zuten aurkariarekin eta Pablo Arrondok kale egin zuten.

Aurreko zenbakian herriko ordezkariak Santikutz Bren aurka liga amaituko zuela adierazi bagenuen ere, hilaren 29an jokatu du Taulak ligako azken lehia Mutrikun. Sailkapeneko buru da Lasarte-Oriako taldea, baina gertu ditu aurkariak eta puntuak gehitu behar ditu igoera lortzen duen hiru taldeen artean egoteko.

Amateur txapelketa sailkapen orokorra

• Bakarkakoak/bikoteak

Master maila - **Paula Martinez** - 8º

Senior A maila - **Mirian Prieto** - 3º

Jubenil A maila

- **Noa del Amo eta Saioa Boyero** - 5º

- **Maitane Sarmiento** - 9º

• Taldeak

Jubenil A - **LOKE** - 5º

Kadete B - **LOKE** - 10º

Kadete C - **LOKE** - 2º

Eskolarteko txapelketa bigarren faseko emaitza eta sailkapen orokorra

• Bakarkakoak/bikoteak

Infantil A maila

- **Oihane Portuburu eta Laia Suberbiola** - 3º/6º

- **Aiala Jimenez** - 1º/1º

Alebin A - **Ariane Rodriguez** - 2º/1º

• Taldeak

Infantil A - **LOKE** - 5º/5º

Infantil B

- **LOKE P1** - 11º/9º

- **LOKE P2** - 9º/5º

Infantil C- **LOKE** - 7º/7º

Alebin B - **Landaberri** - 10º/12º

Alebin C

- **Landaberri P** - 14º/26º

- **Landaberri G** - 4º/9º

*Beltzez podium postuak / *Sailkatutako gimnastak edo taldeak*

Aterpea, Hipodromoko lasterketen babesle

Lasarte-Oriako Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak hastear den Udaberriko denboraldiko hiru jardunaldi babesleko ditu. Apirilaren 2, 9 eta 24ko hitzorduetan sariak banatuko dituzte herriko hamabost merkatari eta ostalariek

Txintxarri

Aterpea Merkatari eta Ostalarien Elkarteak laugarren urtez jarraian Donostiako Hipodromoko Udaberriko denboraldiko lasterketen babesle izango da.

Hilaren 2an hasiko dira zaldi lasterketak zaletuen gozamenerako eta Lasarte-Oriako merkatari eta ostalarien elkarteko kideek sasoiko hiru jardunaldi babesleko dituzte, zehazki, hilaren 2, 9 eta 23ko saioak (Ikus beheko koadroa). Goizeko lehiak izango dira eta bakoitzan bost lasterketa jokatu dira.

Aterpea elkarteko kideak eskertuak agertu dira aurten ere Hipodromoak emandako aukerarengatik. Elkarteko kide Ramon Orma-



Aterpeako zein Hipodromoko ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

zabalek gogoratu modura, "Hipodromoa sortu zenetik gure herriari lotua egon da. Gure herriarentzako aktibo ekonomiko izan da eta onurak ekarri dizkigu merkatari eta osteleriei".

Josu Ruiz Hipodromoko kudeatzaile berriak ildo beretik jo du eta Aterpeak hiru hitzorduak babestea "ohore bat dela" nabarmendu du: "Mekataritza hiri edo herri baten bihotza direlako".

1. jardunaldia - Apirilak 2

- Arkupe taberna saria
- Arima Gastrotaberna saria
- Alcar Leihoak saria
- Bideo Lagunak saria
- Aldaz Hortz Klinika saria

2. jardunaldia - Apirilak 9

- El Punto taberna saria
- Lasarte-Oria Orain saria
- Arregui elektrizitatea saria
- Ormazabal loradenda saria
- Marbell ileapaindegia saria

4. jardunaldia - Apirilak 24

- Herriko Etxea jatetxea saria
- Patricio taberna saria
- ISU Leihoak saria
- Maiane perfumeria saria
- Milla finka administrazio saria



Intza eta Pagazperen aruteko neurketako irudia. TXINTXARRI

Intzako Infantil I. mailako bikotea, Ekialdeko finalean

Alebin I. mailako bikoteak, aldiz, ezin izan du Gipuzkoako txapelketako finalerako txartela eskuratu

Txintxarri

Intzako gaztetxoek Errendimendu mailako txapelketa ezberdinetako finalerdiak lehiatu zituz-

ten hilaren 21-23ko asteburuan eta txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten. Infantil I. mailako bikoteak garaipena eskuratu (18-

16) eta Ekialdeko txapelketako finala jokatu dute Zizurkilen.

Loidibarren pilotalekuan jokatu zen hitzorduan Pagazpe izan zuten aurkari Lasarte-Oriako ordezkariak.

Urduri hasi zuten lehia Kimetz Atorrasagastik eta Oier Jauregik eta usurbildarrek aurre hartu zuten. Baina etxeko bikoak ez zuten amore eman eta seriotasunez jardunez, neurketa berdindu eta finalerako txartela eskuratu zuten.

Gipuzkoako txapelketako lehiari aurre egin zion, aldiz, Alebin I. mailako Aiur Gorostidik eta Irai Jauregik osatutako bikoak Ataunen.

Etxekoak indartsu ekin zioten lehiari eta nagusi izan ziren neurketaz. Intzako ordezkariak ezin izan zuten ezer egin eta 16-1 izan zen azken emaitza.

Ituarte eta Martin herritarrek, selekzioekin arrakasta

Joseba Ituarte Mexikoko atezain entrenatzaile da; Jon Martin 19 urtez azpiko selekzioarekin lehiatu da Italian

Txintxarri

Joseba Ituarte eta Jon Martin herritarrek selekzio ezberdinekin balentria ederra egin dute.

Ituarte Mexikoko selekzio atezain entrenatzaile lanetan ari da Javier Aguirreren zuzendaritzapean eta CONCACAF federazioko Nations League txapelketa irabazi berri du taldeak.

Inglewood, Kalifornian (AEB) jokatu zuten finala Panamaren aurka eta 2-1 gailendu ziren mexikarrak.

Sailkapena eskuratu

Martinek, aldiz, 19 urtez azpiko Europako txapelketa jokatzeko txartela lortu du Espainiako Selektioarekin.

Hilaren 19tik 25era Italian jokatu den sailkapen fasean, Frantzia (2-1) eta Letonia (1-4) garaitu ditu Espainiako selekzioak eta etxeko talde Italiaren aurka bina berdindu zuten.



Ituarte, kopa eskuan. J. ITUARTE

Hiru neurketetan hamaboste-koan izan da Real Sociedad taldeko kidea. Selektioa galiarraren aurka, gainera, Martinek gola egin zuen buruz eta azken partidaren Letonia aurkari zutela ere gol aukera ugari izan zituen.

Txapelketako azken fasea ekainaren 13tik 26ra jokatu da Errumania eta Espainiak egun duen Europako txapelkun titulua defendatuko du.



TXINTXARRI

Ezin kopa garaipenarekin hasi

Eguzki ISU Leihoak taldeak ezin izan du III. mailako kopa lehiaketa garaipenarekin hasi; 2-4 galdu zuten. Txapelketako lehen jardunaldian Eibartarrak izan zuten aukari talde hori-beltzak Maialen Chourraut kiroldegian. Bi taldeek ederki borrokatu arren, Eibargo ordezkariak aurreratu ziren markagailuan bi golekin. Lander Martinek zuzentzen duen taldeak markagailuan gerturatzeko ahaleginak (1-2 eta 2-3) egin arren, aurkariak erantzun modura gola egin eta etxeko taldea atzetik joan zen neurketa osoan zehar.

Ligako lehiaketaz aparte, Eguzki Areto futbol taldeko 12 eta 14 urtez azpiko lau kide Euskadiko selekzioarekin egon dira lanean azken asteetan. Apirilaren 2tik 6ra Erkidegoen Selektioen arteko Espainiako Txapelketa jokatu du Euskadik Blanesen (Katalunia) bi maila horietan eta deialdian sartzeko aukera handiak dituzte herriko gazteek. 12 urtez azpikoan lehiatu liriteke Peru Azkarate, Josu Garcia eta Unai Berasategi eta 14 urtez azpikoan, Telmo Aranzadi.

ZORION AGURRAK



Ane
Zorionak maitia!!!!
Asko maite zaitugu!!!!
10 muxu potolo!!!!



Lur
Zorionak zure ez-urtebetetze egunean!! Azken astean ederki ospatu dugu eta oraindik ere falta dena. Zortzi muxu handi familia guztiaren partetik!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/ zorionagurra.
- Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaile ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 28	LASA
LARUNBATA, 29	GIL
IGANDEA, 30	GIL
ASTELEHENA, 31	GIL
ASTEARTEA, 1	ACHA-ORBEA
ASTEAZKENA, 2	KNIESE
OSTEGUNA, 3	KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behea, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Eskutitzak argitaratzeko

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua idaltzeko: bulegora etortzea (Geltoki kalea 4, behea), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea.

Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKAINITZA

Interna modura lan egiteko pertsona behar dugu, Soziosanitario tituluduna. Interesa duenak dei dezala: 685 70 44 40 edo 635 20 73 86.

ESKARIA

Etxe garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta informea ditut. Harremanetarako zenbakia, 678 35 50 95.

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Externa moduan lan egiteko prest nago, 09:00etatik

16:00etara. Dokumentazio guztia eguneratuta dut. Harremanetarako, 623 72 00 61.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakaskaitako klase partikularrik emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

2. Batxilergoko ikasle bati Matematiketan laguntzeko eskola partikularrik emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatiak edo saio partikularrik emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera emateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c.-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko larruzko eserleku berogarririk. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagu-

nak. Hurbiltasun-sentsorea. Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-ekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldulekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-ese-kidura eta marboko estalkiak. Dazkadaren serieko gauza guztiak motorrarekin batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.1 saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituzte gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

SUDOKUA

7		5		4		2	1	
		8		2	4	3	5	
	4		8	5				
6			3	8		5	2	
	8			2		3	9	
		1		5	9		8	
		9	2	6	1	8	7	
8				9				6
	7			8				9

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Lierni Apaolaza Urdanpilleta.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdalletea, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Intza Aginagalde.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Prestatutako ekimenak aurkeztu dituzte

Udaleko Kultura Zinegotzi Ainara Elicecheak eta Udal Liburutegiko arduradun Irene Urruzolak ekainera bitarte liburutegiak aurrera eramango duen programazioa aurkeztu dute. Askotariko adinetako herritarrei zuzendutako jarduerak iragarri dituzte

Txintxarri

Helduentzako solasaldi literarioak, haurrentzako ipuin kontalari saioak eta literatura, artea eta sare sozialak uztartzen dituen argazki erakusketa bat iragarri dituzte. Arduradunek azaldu dute programazio horren helburua dela liburutegia herritarren askotariko interesetara egokitutako espazio ireki, dinamiko eta parte hartzailea bilakatea. Honako adierazpenak egin ditu Elicecheak: "Udal liburutegia herritarrentzako gune 'bizi, ireki eta hurbil' gisa sustatzen jarraitu nahi dugun lekua da. Kultura irisgarri eta parte hartzaile baten aldeko apustua egiten dugu. Espazio hori ez dela soilik ikasteko eta irakurtzeko lekua, hori baino gehiago izan behar du".

Zinegotziaren hitzartzearen ostean, Urruzolak hartu du hitza, eta "komunitatearen interes aniztasuna" islatzen duen programazioaren aurkeztu du.

Solasaldi literarioen zikloaren berri eman du lehenik. Hiru izango dira guztira, eta horietan lehen dagoeneko aurrera eraman dute. Hilaren 24an izan zen, eta Yoko Ogawa idazle japoniarraren *La formula preferida del profesor* landu zuten.

Bigarrena, berriz, maiatzaren 5ean, astelehenarekin, egingo dutela jakinarazi du. Horretan, Amelie Nothomb belgikarraren *Estupor y temblores* lanaren txanda izango da. Eta hirugarren eta azken solasaldi literarioa ekainaren 2an izango da, hori ere astelehenarekin. Stefan Zweig-en *Novela de ajedrez* klasiko ezaguna izango dute hizpide.

Saio horiek guztiak 18:00etatik 20:00etara izango dira, liburutegian bertan eta saioak Monica Leiva irakurketa partekatuan adituak dinamizatuko ditu.

Lego Spike robotika tailerrak

Apirilaren 5ean, 8 urtetik gorako haurrei zuzendutako robotika

hezigarriko bi tailer egingo dituzte liburutegian, Lego Spike erabiliz. Saio bakoitzean gehienez hogeita parte hartzaile arituko dira, eta Discover Bricks enpresak gidatuko du. Jarduera horren helburua da pentsamendu logikoa, sormena eta talde lana garatzea jolasa eta programazioaren bitartez.

Haurrentzako ipuin kontalari saioak ere izango dira. Apirilaren 2an izango da lehen, Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Egunean. *Mamuak eta beste aukide batzuk* izeneko ipuinaren berri jasoko dute bertaratzen direnek. 4 eta 10 urte bitarteko haurrentzako jarduera dela jakinarazi dute antolatzaileek, eta 18:00etan izango dela. Horren helburua da txikitatik irakurzaletasuna sustatzea, jolasaren, ahozko narrazioaren eta irudimenaren bidez.

11n aurrera eramango dute bigarrena. Liburu Baby Klubaren beste saio bat izango da, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat pentsatutako hileko ipuin kontaketa



Ezker-eskuin: Ainara Elicechea, Irene Urruzola eta Aitor Carrasco. TXINTXARRI

saioa. Gurasoekin batera parte hartuko dute txikiek, eta saioa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango da. Horrek ere haurrak liburu mundura hurbiltzea du helburu, estimulu sensorialen eta lotura afektiboaren bitartez. Hurrengo saioak, berriz, apirilaren 12an, maiatzaren 10ean eta 31n, eta ekainaren 7an eta 21ean izango dira, 11:00etan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Bookface erakusketa

Irudia, liburua eta sormena uztartzen dituen proposamen bat ere egin du Udal Liburutegiak aurkeztutako programazioan.

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela baliatuta, aurrez aurreko jardueraz gain, Bookface erakusketa ikusgai jarriko dute. Ikus-entzunezko proiektu

tu berritzaile horrek liburu mundua argazkigintza eta sare sozialen artearekin lotzen du.

Erakusketa Zizurkilgo Plazida Otaño liburutegiko taldeak egingo irudien hautaketa bat aurkeztuko dela jakinarazi du Urruzolak, eta esan, argazkietan parte hartu dutenak benetako erabil-tzaileak direla. Egitasmo horren xedea da liburutegiaren irudi isil eta itxia hautsi eta publiko gaztearengana modu sortzaile eta hurbilean iristea. Honako adierazpenak egin ditu gero liburutegiko arduradunak: "Erakusketa hau ekarri nahi izan dugu, oso modu originala iruditzen zaigulako liburuak erdigunean jartzeko, publiko berriekin konektatzeko eta liburutegietan ere ustekabea eta espresio artistikoa badagoela erakusteko."

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN. Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@takun.eus

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Aun estoy aquí* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Azken ostirala aurrera eramango du Lasarte-Oriako Sare Herritarrak. *Elizatze plaza, 20:00etan.*

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA Jardunaldiak

Lasarte-Oriako GKS Gazte Koordinadora Sozialistak jardunaldi antifaxistak aurrera eramango ditu, eta horretarako, honako egitaraua iragarri du:

17:00etan, Faxismoak hamaika aurpegi mahai ingurua, gonbidatuekin, Gaztelekuan.

18:30ean, grafiti tailerra, Tximistarreta parkean.

20:00etan, Rap musika emanaldiak: MKL, Astroboy, Noctis eta Begi Gorri Selector. *Herriko zenbait lekutan, 17:00etatik aurrera.*

LASARTE-ORIA Antzerkia

Txalo Produkzioak-ek *Amak* antzezlanaren emanaldia egingo du, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema

Paddington en la selva filma emango dute, haurrentzat. komediazko ikus-entzunezkoarekin igaroko dute arratsaldea, etxeko txikienek. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinema

La ultima reina filma emango dute, helduentzat. Sarrerek, 6 eurotan. *Kultur etxea, 19:30ean.*

APIRILAK 1

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Hitz egin dezagun... heriotzaz bizitzatik hitzaldia, zainketa aringarrietako osasun langile Eli Elizegi eta Iñigo Suberbiolaren eskutik. *Arrieskalleta elkarte, 18:00etan.*

APIRILAK 2

LASARTE-ORIA Batzarra

Lasarte-Oriako Bizipoza taldeak maiatzeko jaia prestatzeko bigarren batzar irekia egingo du. *Ttakunenea elkarte, 19:00etan.*

APIRILAK 4

LASARTE-ORIA Deialdia

Herri Ekimen Legegilea babesteko azken sinadura bilketa egingo dute pentsiodunek Ola kalean, Okendo plazan eta Euskotren geltokiko sarreran. *Herrian barrena, 18:00-21:00*



GIPUZKOAKO
ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN
GIPUZKOA

Goi eta erdi mailako zikloak • BIM
ERAIKUNTZA

ATE IREKIAK
ETORKIZUNA ERAIKI!



Izena eman gure webgunean : eagi.eus

Zalantza edo argibiderik behar baduzu jarri
harremanetan: 943 569 222 // eagi@eagi.eus

Noiz? **17:00**

08

Apirila

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA SAIA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp
LABORAL
HABILITADA



600 85 75 86 
www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel. 943-36 10 80

Hiru koloretan



- Argia bideragarriarekin.
- Instalazio erraza.
- Bateria integratua.
- Kablerik gabe edonora eraman dezakezu.

Aplike eramangarriak,
malguak eta bateriarekin



2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA



Lasarte-Oria

IZEN-EMATEA
MARTXAN!



Eman izena
ahobizi edo belarriprest



www.euskaraldia.eus



LASARTE-ORIA
Kultur Ekintza

Ta
kun
Kultur Ekintza